



Udalsarea 21eko udalerrri eta eskualdeen parte-hartzea

Dibulgazio-dokumentua

2011ko martxoa

Dokumentu honen egilea:



Udalsarea 21eko udalerrri eta eskualdeek EcoEuskadi 2020an parte hartzea

- Zer da EcoEuskadi 2020?
- Zertarako behar du EAEk garapen jasangarriko estrategia bat?
- Orain arte, zer urrats egin dira EcoEuskadi 2020an?
- Zein dira EAEko jasangarritasunaren gakoak?
- Zertarako sustatuko dugu Udalsarea 21eko udalerriek EcoEuskadi 2020an parte hartzea? Nola?
- Eztabaidarako eta parte-hartzerako gaiak

EcoEuskadi 2020ren helburua da EAEn garapen jasangarria bultzatuko duen estrategia sortzea.

EcoEuskadi 2020 Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia (2020) egiteko sortua.

EcoEuskadi 2020 ideia nagusi batean oinarritzen da: gure gizartea garatzeko, beharrezkoa da ekonomia, ekologia eta gizartea bateratzea.

Horregatik, EcoEuskadi 2020ren helburua da gogoeta egitea garapen ekonomikoaren, zuzentasunaren eta kohesio sozialaren inguruan eta ingurumenaren zaintzaren inguruan. Gogoeta horien emaitzak ikusita, EAEko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko politika publikoak era batera edo bestera orientatuko dira.

• Zertarako behar du EAEk garapen jasangarriko estrategia bat?

Azkar aldatzen ari den mundura egokitu behar du EAEk.

Azken 30 urteotan, nabarmen hazi da EAE, eta garbi erakusten dute hori adierazle ekonomiko, sozial eta ingurumenekoek.

Hala ere, 2008ko krisi ekonomiko larriak eta sistemako aldaketa batzuek (aldaketa demografikoak, klima-aldaketa, baliabide mugatuengatikoa lehia gero eta handiagoa, nahitaezko migrazio-fluxuak) arriskuan jartzen dute orain arteko hazkunde-eredua.

EAEk aldaketa berrietara moldatu behar du. Etorkizunaren ikuspegia islatuko duen eta hura lortzeko jarduerak zehaztuko dituen estrategia definitzeko beharra dauka. Estrategia hori da EcoEuskadi 2020.

• Orain arte, zer urrats egin dira EcoEuskadi 2020an?

Oraingoz, azterketaren fasea egin da. Fase horren barruan, oinarrizko dokumentu batzuk egin dira.

EcoEuskadi 2020 gauzatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak azterketa- eta gogoeta-prozesua egin du.

- *2030eko egoera hipotetikoak. EAEn izango dituen ondorioak; bertako aldagai sozioekonomiko nagusien etorkizuneko joerak aztertu dira.*
- *Egoera-diagnostikoa, EAE 2020an jasangarria izan dadin.*
- *EAEko jasangarritasun-desafioen proposamena. Azken dokumentu hori 400 agente sozioekonomiko baino gehiagorekin egiaztatu da.*

Horren guztiaren emaitza gisa, *EAEko jasangarritasunaren gakoak* dokumentua prestatu da.

• Zein dira EAEko jasangarritasunaren gakoak?

EAEko ekoizpen-, ingurumen- eta gizarte-ereduaren jasangarritasunean funtsezko diren zortzi desafio identifikatu ditu EcoEuskadi 2020k. Hauek dira:

EAEko ekoizpen-, ingurumen- eta gizarte-eredurako funtsezko zortzi desafio identifikatu ditu EcoEuskadi

1. Baliabide natural urriak eta agortzeko bidean daudenak.
2. Energia-mendekotasuna eta klima-aldaketa.
3. Lehiakidetasunaren globalizazioa.
4. Mugikortasun eta garraio jasangaitzak.
5. Aldaketa demografiko sakonak.
6. Belaunaldi-aldaketa desorekatua.
7. Aldatzen ari den balio-sistemaren ahultasuna.
8. Nazioarteko garapena ez da orekatua.

Zergatik dira desafioak EAerentzat?

1. Baliabide natural urriak eta agortzeko bidean daudenak.

2. Energia-mendekotasuna eta klima-aldaketa.

3. Lehiakidetasunaren globalizazioa.

4. Mugikortasun eta garraio jasangaitzak.

5. Aldaketa demografiko sakonak.

- Lehengaien eta baliabide naturalen mende (elikagaiak barne) dago gure ekoizpen-sistema, erabat.
- Gure ekoizpen-sistema eta bizimodua oso kalteberak dira, energia fosilen mende (petrolio eta gas naturala) baitaude. Bestalde, industriak, garraioak eta etxeek emititzen duten CO₂-ak klima-aldaketa azkartzen du mundu mailan.
- Euskadik testuinguru globalizatuan lehiatu behar du. Globalizazioak kaltebera egiten gaitu eta gure posizioa egokitzea behartzen gaitu. Herrialde txikia gara, eta hazkunde globaleko motorrengandik urrunduz goaz.
- Ibilgailu pribatuaren erabilera eta errepide bidezko merkantzien garraioa etengabe haziz doaz. Barneko nahiz nazioarteko joan-etorrien mugikortasuna da.
- Bizi-itxaropena hazi izanak eta jaiotze-tasa jaitsi izanak aldaketa sakona eragin dute gure gizartearen egituran. Bizi-itxaropena handiagoa izateak aukerak eta poztasunak ematen ditu, baina gizarte- eta osasun-zerbitzuen eredia eta haien finantzazioa berraztertu behar dira.

6. Belaunaldi-aldaketa desorekatua lan-merkatuan.

7. Aldatzen ari den balio-sistemaren ahultasuna.

8. Nazioarteko garapena ez da orekatua.

- Langileen behin-behinekotasuna eta norberaren gaitasunekin bat ez datozen enplegetan aritzea gure lan-merkatuaren ahulgune nabarmenak dira. Gazteentzat zaila da gogobetetzen dituzten lanak lortzea eta beren gaitasunak garatzea. Talentuek ihes egiteko aukera sortzen du horrek.
- Gure gizartearen ezaugarri izan diren balio batzuk indarra galtzen ari dira. Kasurako, laneko ekimena, solidaritatea eta zuzentasuna. Terrorismoak eta gizarte-banaketak ere aztarna sakonak utzi ditu gure gizartean.
- Arazo global larrien ondorioz, elkarri eragiten dioten hiru prozesu gertatzen dira munduan: kalteberatasuna, desoreka eta pobrezia. Egoera horren ondorioz, planifikatu gabeko migrazioak izaten dira. Hori saihesteko, beharrezkoa da Hegoaldeko herrialdeen garapena eta nazioarteko solidaritatea.

Testuinguru horretan, EcoEuskadi 2020ren egitekoa da jarduera-estrategia batekin erantzutea desafio horiei; hain zuzen, 2020rako Garapen Jasangarriko Estrategiarekin.

• Zertarako sustatuko dugu Udalsarea 21eko udalerriek EcoEuskadi 2020an parte hartzea? Nola?

Udalerrien partaidetzaren esperientzia, jakintza eta ideiak jaso nahi ditu EcoEuskadi 2020k.

Tokiko Agenda 21eko eta Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoaren foroek lan bikoitza dute.

Zer esan nahi du EAE 2020an jasangarriago izateak? Nola lortu?

EcoEuskadi 2020k agente sozial eta ekonomiko guztien parte-hartzea batu behar du. Ikuspegi ezberdinak bateratu eta gogoeta nahiz proposamen berriak sortu nahi ditu, identifikatutako desfioei aurre egiteko.

Zehazki, EAEko udalerrri eta erakundeen parte-hartzea baliatu nahi du EcoEuskadi 2020k. Horretarako, hauekin lan egin nahi du:

- Interesatuta dauden udalerrietako Tokiko Agenda 21eko foroekin.
- Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarearen Batzorde Teknikoarekin.

Horiekin batera lan eginda, EcoEuskadi 2020ren asmoa da interesatuta dauden pertsonen parte-hartzea ideia hauen inguruan bideratzea:

- *2020ko EAE jasangarriaren ikuspegia.*
- *2020ko EAEn jasangarritasunaren gakoak.*

• Eztabaidarako eta parte-hartzerako gaiak

Gure ekoizpen-moduak eta bizimoduak aldatzeko beharra hartzen dugu abiapuntutzat. Gure baliabideak mugatuak direla ulertu behar dugu. Helburua da gutxiagorekin gehiago egitea. Muga gabeko hazkunde kuantitatiboaren ikuspegia alde batera utzita,

EcoEuskadi 2020ren helburua da 2020rako Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategiari edukia emango dioten proposamen, ideia eta ildoak lortzea.

Hala, EAEko politika publikoak jasangarritasunera bideratuko dira.

hobekuntza kualitatiboak egiten dituen gizartea irudikatu nahi dugu.

Testuinguru horretan, hauek izango dira partaidetzaren ardatz:

- *2020ko EAE jasangarriaren ikuspegia:* Zer esan nahi du EAE 2020an jasangarriago izateak?
- *2020ko EAEren jasangarritasunaren gakoak:* nola heldu desafioei?, zein proposamenek dute lehentasuna Garapen Jasangarriaren Estrategiari edukia emateko?

Abiapuntu gisa eta eztabaidari laguntzeko, jarraian, jasangarritasunaren zortzi gakoak, gako bakoitzarekin zerikusia duten gaiak eta orain arteko azterketatik ondorioztatutako jarduera-proposamen batzuk azaldu ditugu. Alderatu eta osatu egin behar dira ideiak.

1. gakoa. Baliabide natural urriak eta agortzeko bidean daudenak

- **Zerikusia duten gaiak:** Ekoizpen eta kontsumo iraunkorrak. Baliabide eta lehengaien erabilera. Hondakinak eta birziklatzea.
- **Ekintzarako ideia batzuk:**
 - Ekoizpen eraginkorraren aldeko apustua: ekodiseinua, birziklatzea eta baliabideak berrerabiltzea.
 - Berrikuntzatik ekoberrikuntzara (berrikuntza ekologikoa) igarotzea.
 - EAEko lehen sektoreari laguntzea elikagaien hornitzaile eta natura-ingurunearen kudeatzaile dela kontuan izanda.

2. gakoa. Energia-mendekotasuna eta klima-aldaketa

- **Zerikusia duten gaiak:** Klima-aldaketa eta energia-eredua. Lurraldearen antolakuntza eta erabilerak. Biodibertsitatea eta natura-ingurunea.
- **Ekintzarako ideia batzuk:**
 - Berrikuntza eta energia-eraginkortasuna hobetzea: (i) energia-kontsumoa murriztea, (ii) energia alternatiboak sortu eta erabiltzea, (iii) eta karbonorik gabeko ekoizpen-sistema alternatibo bat sortzea.
 - Kostaldeko azpiegiturak indartzea, klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko.
 - Lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza egiten direnean, natura-ingurunea zorrotz kudeatzea.

3. gakoa. Lehiaren globalizazioa

- **Zerikusia duten gaiak:** Ekoizpen-eredua, lana eta lehiakortasuna. EAE, ekonomia globalean.
- **Ekintzarako ideia batzuk:**
 - Produktu berriak eta jakintza berria garatzea.
 - Teknologia berriak eratzea eta negozio-eredu berriak diseinatzea, betiere jasangarritasunaren barruan.

4. gakoa. Mugikortasun eta garraio jasangaitzak

- **Zerikusia duten gaiak:** Mugikortasuna eta garraiobideak. Azpiegiturak. Lurraldearen antolakuntza eta erabilerak.
- **Ekintzarako ideia batzuk:**
 - Ingurunea gehiago errespetatzen duten eta erregai fosilekiko mendekotasun txikiagoa duten garraiobideak.

5. gakoa. Aldaketa demografiko sakonak

- Zerikusia duten gaiak: Ongizateko estatua.
- Ekintzarako ideia batzuk:
 - Zahartze aktiboa sustatuko duten negozio-aukera berriak sortzea.
 - Lana eta familia bateratzeko politikak garatzea.

6. gakoa. Belaunaldi-aldaketa desorekatua

- Zerikusia duten gaiak: Enplegua eta lehiakortasuna. Hezkuntza.
- Ekintzarako ideia batzuk:
 - Lan-merkatuaren erregulazioa.
 - Hezkuntza-sistema lan-merkatuak behar dituen gaitasunetara egokitzea.

7. gakoa. Aldatzen ari den balio-sistemaren ahultasuna

- Zerikusia duten gaiak: Kultura eta gizartea. Bizitza osoan ikasteko eta hezteko jarduerak.
- Ekintzarako ideia batzuk:
 - Gizarte gisa erronka sozial berriei erantzuteko dugun gaitasuna areagotzea, kohesio eta berdintasun sozialetik abiatuta.
 - Euskal identitate irekia eta partekatua eraikitzeke etengabeko prozesua. Identitate hori da, desberdintasunak eta taldearen ondarea eta memoria errespetatuz, kohesio soziala eta garapen demokratikoa bultzatuko dituen.
 - Ezagutza eta gaitasun teknologikoak eta sozialak, bizitza osoan zehar.

8. gakoa. Nazioarteko garapen desorekatua

- Zerikusia duten gaiak: Kohesio soziala eta elkartasuna.
- Ekintzarako ideia batzuk:
 - Garatze bidean dauden herrialdeen garapenarekiko erantzukizuna.

Oharra: Partaidetza-saio bakoitzean, Euskadiren jasangarritasunaren gakoak zehatz azaltzen dituzten materialekin eta dokumentazioarekin lan egingo da.